
SANTUR-ZIRKO
Zirko Kalean
Circo en la calle
Irailak 17, 18, 19 Septiembre
2/4
zirko ARETOAN
Irailak 25 septiembre,
Urriak 8-22 octubre
5/7
AIZU!
Zirko-ikastaroa
8
Serantes
KULTUR ARETOA

**IRAILAK 17 SEPTIEMBRE**

**1**

**MIKRA**

20:00
40'
Dinez Gunean/Calle Peatonal

# Zirko Kalean

## *Zirko en la calle*

*Bi akrobata oholtza gainean "perfekzioaren" bila, akrobazia-munduan "normaltzat" jotzen dena. Desadostasunak, arazoa eta enpatia falta oztopoak baino ez dira izango eurek sentitu eta gainerakoek atzematen dutenaren arteko aldea aztertzera eramango dituen bidean.*
***Mikra** piezan zirkuko diziplina akrobatikoak erabiltzen dira hizkuntza gisa, botere-harremanak ikusgai jartzeko. Rol- eta genero-estereotipoetan oinarritu arren, beste gai batzuen zertzeladak ere baditu, gurasotasuna edo identitatea, besteak beste.*





*Berdinki*

Dos acróbatas se encuentran en un escenario, en la búsqueda de la "perfección", considerada "normal" en el mundo de la acrobacia. Los desencuentros, problemas y la falta de empatía serán obstáculos en este camino que les llevará a analizar la diferencia entre lo que ellos sienten y lo que los demás perciben.
**Mikra** es una pieza que utiliza como lenguaje las disciplinas acrobáticas circenses para visibilizar las relaciones de poder, basándose en los estereotipos de rol y de género, con pinceladas de temas como la paternidad o la identidad.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## 2

### NUDO

13:30
50'
Oinez Gunean/Calle Peatonal



Rojo telón

*Eta zeruak hartuko dituzte berriro, estutzen dituzten korapiloak askatzeko. Eta etengabeko bakanal batean atsegin hartuko dute, lozorroan egon eta bere mugetatik haratago bidaia transzendental batean haiek izatera iristeko. Baina nortzuk dira haiek? Korapiloak askatzen lagunduko diguten hiru emakume dira, umore, interpretazio eta zirkuko tekniken bidez (aireko zein zorukoak), mundu desberdinak ibiliko dituztenak publikoak lotsa galdu eta esperientzia "zerutiarra" bizi dezan.*

Y volverán a tomar los cielos para desatar los nudos que las oprimen. Y se regodearán en una eterna bacanal para entrar en un estado de letargo y así trascender para volver a ser ellas.
¿Y quienes son ellas? Tres desatanudos. Tres mujeres que, a través del humor, la interpretación y técnicas circenses (aéreas y de suelo) transitarán mundos diferentes para hacer que el público se desmelene y viva una experiencia 'celestial'.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## 3

### SIN OJANA

19:30
55'
Pantalanetan/Pantalanes

***Chicharron**ek, leinu flamenkoaren azken katebegiak, familiaren peña flamenkoa gordeta duen gurdia ekarriko du, flamenkoaren erritmo eta konpasak esku-jokoekin uztartzeko toki bikaina. **"Ojanarik gabe"** esaerak "gezurrik gabe" esan nahi du, "itxurakeriarik gabe". **Chicharron**ek bere ibilbidean askatasunari abesten dio, flamenkoari, emakumeari eta bizitzaren gazi-gezei. Arteen arteko nahasketa da, umoretsu bezain dramatikoa, zeinak harrapatu egingo gaituen gure bizitzetan soineko tantoduna janzteko.*

**Chicharrón**, último eslabón de una dinastía flamenca, trae el carromato donde guarda la peña flamenca familiar, en la que fusionará los ritmos y compases del Flamenco con los malabares.
**Sin Ojana** significa sin mentiras, sin hipocresías. **Chicharrón**, en su itinerancia, lleva consigo, un cante a la libertad, un homenaje al Flamenco, a la mujer y a los devenires de la vida. Un mestizaje de artes en el que, entre el humor y el drama, nos atrapará para colocar unos lunares a nuestras vidas.



Chicharrón

## 4

### ÁUREO

20:30
45'
Arrantza Portuan /Puerto Pesquero

*Edertasuna, harmonia eta plastikotasuna; eta aldi berean, arriskua, tentsioa eta inpaktua. Maila tekniko altuko akrobaziak objektu eta pertsonen arteko harremanak zehaztasun handiz kalkulatutako espazio batean egiten dira. Ezer ez da arbitrarioa. Ez dago istoriorik, ez dago zer kontatu, ikuslearen begietara zerbait erakargarria erakustea besterik ez. Horrela, elementu bakoitzean, jauzi bakoitzean eta erorketa bakoitzean sentiarazten diguten gozamen eta ziurgabetasunaren arteko kontrastea biziko dugu.*



Uparte

Belleza, armonía y plasticidad y, a la vez riesgo, tensión e impacto. Acrobacias de un alto nivel técnico se ejecutan en un espacio en el que las relaciones entre objetos y personas fueron calculadas con precisión y argumento. Nada es arbitrario. No hay historia, no hay nada que contar, solamente crear en el espectador un atractivo hacia lo visual, el contraste entre lo acogedor y la incertidumbre de cada elemento, cada salto, cada caída.

Red de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales
inaem
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

## 5

### PANOLI KABARETA

*13:30*
*45'*
*Oinez Gunean/Calle Peatonal*



Ganso&Cía

***Artista izan nahi zuten. Bere buruari laguntzeko liburu bat irakurri zuten. Esperientziarik ez zuten arren, aurrera egitea erabaki zuten. Panoli Kabareta autoestimu gaindosi horren emaitza da. Ez dira punta-puntakoak izango zirku- edo vodevil-munduan, baina barre, behintzat, egin-egingo dugu.***

Querían ser artistas. Leyeron un libro de autoayuda. A pesar de no tener experiencia alguna decidieron confiar en sí mismos. **Panoli Kabareta** es el resultado de esa sobredosis de autoestima. No pasarán a la historia del circo o el vodevil, pero al menos nos echaremos unas risas.



## 6

### URBASA

*19:30*
*55'*
*Oinez Gunean/Calle Peatonal*

***Txalaparta** entzuten da eta lainoak misterio-kutsua ematen dio naturaz betetako mendi lasaiari. Baina bat-batean bisitari batek ingurunearen bakea apurtu egingo du indarra eta teknologia erabiliz. **Urbasa**ko mendizerra muga fisiko eta klimatikoa da, eta aspaldi-aspalditik gizakion eta naturaren arteko elkargunea ere bai.*

Suena la **Txalaparta** y la niebla pone marco a una montaña que respira naturaleza, que respira calma. Pero ésta se verá alterada por un visitante que romperá este entorno, a través de la fuerza y la tecnología. La sierra de **Urbasa**, representa una frontera física y climática, que desde hace mucho tiempo ha sido punto de unión entre personas y naturaleza.



Hutsun+Ortzi

## 7

### DE TÚ A TÚ

*20:30*
*60'*
*Arrantza Portuan /Puerto Pesquero*



Mur Konpania

***"De tú a tú" antzezlanak bi pertsonaren artean sortzen diren harremanak ikertzen ditu, binaka, konplizitate- eta intimitate-maila, eta desadostasun-maila hala badagokio, handiagoa lortzeko moduko egoera gisa. Horrela, muntaia binomio edo bikote desberdinetan egituratzen da, teknika banatan zentratuta, gaian aditua den batek zuzenduta. Zorroztasuna eta emozioa bikote horientzat, non desgaitasun fisiko edo intelektuala duen artista batek beti hartzen duen parte. "Denok dugu dibertsitate funtzionala, denok funtzionatzen dugulako desberdin".***

**"De tú a tú"** indaga con rigor y emoción sobre las relaciones que se establecen entre dos personas, como la situación en la que es posible llegar a un mayor grado de complicidad e intimidad, o de desencuentro, llegado el caso. Este montaje se estructura sobre distintos binomios o dúos, cada uno centrado en una técnica, dirigidos por un especialista en la materia y en los que interviene siempre un artista con discapacidad física o intelectual.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Serantes Kultur Aretoa



# Desdémona

*Zirkuaren teknikak erabiliko diren tragedia unibertsal ezaguna irudikatzeko.*

*Las técnicas de circo ilustran la tragedia de Shakespeare haciéndola universal.*

12 €

*Irailak **24** septiembre*
*20:30*
*65'*
*Serantes Kultur Aretoan*

**ALBA SARRAUTE Y LAS OFÈLIES**

***Denok entzun dugu Shakespeareren Oteloz zerbait, baina badakigu zein gai jorratzen duen benetan antzezlanak? Ba al dago modu berririk Shakespeareren istorio hori azaltzeko? Alba Sarraute eta les Ofèlies taldeak zirkuaren hizkuntzaren bidez egingo dute: akrobaziak, musika eta interpreteen gorputzek poesiaz betetako irudiak ekarriko dizkigute, Desdemonaren (Oteloren emaztea) begiradatik abiatuta, gizakiaren alderdi dramatikoetan barneratuko gara... irribarrea ezpainetan. Zirkua eta Shakespeare batera agertuko dira pertsonaiak musika eta gorputzaren bidez mintzatuko diren ikuskizun honetan, non zirkuaren teknika erabiliko den tragedia unibertsal ezaguna irudikatzeko.***

Todos hemos oído hablar sobre el Otelo de Shakespeare pero, ¿de qué trata realmente esta obra teatral? ¿Y de qué maneras nuevas se puede explicar esta historia shakespeariana? Alba Sarraute & les Ofèlies lo hacen utilizando el lenguaje del circo, a través de acrobacias, de música y de los cuerpos de los y las intérpretes para crear un conjunto de imágenes cargadas de poesía, con las que, desde la mirada de Desdémona, esposa de Otelo, nos adentraremos en los aspectos más dramáticos de la condición humana... con una sonrisa en los labios. Un espectáculo de circo y Shakespeare donde los personajes se expresan con el cuerpo y la música. Las técnicas de circo ilustran esta tragedia haciéndola volátil y universal.

Red de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales
INAEM
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Zuzeneko musika duen ikuskizun honek ametsaren eta errealitatearen arteko mugan jarriko gaitu

# Déjà vu

*Habla de la distancia entre una persona y sus sueños, de lo que es y de lo que le gustaría ser*



**Déjà vu** lana pertsona bat eta bere ametsen arteko distantziaz arituko zaigu, zer den eta zer izan nahiko lukeen. Bere handinahia pizten duten anbizio handiko ametsak ditu, baina gauza-ezinak dira eta pertsonaia etsipenak jota geratuko da. Ausarta bezain txundigarria..., tarteka umore zorrotza dariola.

Zuzeneko musika duen ikuskizun honek ametsaren eta errealitatearen arteko mugan jarriko gaitu.

Zein distantzia dago errealitatearen eta ametsaren artean? Honakoa da Manolo Alcántararen sorkuntza berriaren abiapuntua. Pertsonaia bakarra oholtzan, anbizio handiko ametsak dituena, bere handinahiaren isla hutsa. Baina asmo handiko ametsak zailak dira gauzatzen, eta errealitatearen eta helburuaren arteko distantzia ikaragarriak etsipenak jota utziko du gure pertsonaia.

***Déjà vu** nos habla de la distancia entre una persona y sus sueños, de lo que es y lo que le gustaría ser. Tiene unos sueños muy ambiciosos que despiertan sus aires de grandeza, pero a la vez imposibles, llevándolo al desánimo. Especialmente sugerente, arriesgado y fascinante... Destilando por momentos un humor fino.*

*Este espectáculo con música grabada y en directo nos coloca en la frontera entre el sueño y la realidad.*

*¿Cuál es la distancia entre la realidad y el sueño? Este es el punto de partida de la nueva creación de Manolo Alcántara, que tiene como protagonista un único personaje. Tiene unos sueños ambiciosos que son, de hecho, la expresión de sus aires de grandeza. Pero estos sueños grandilocuentes son lejos de la vida cotidiana de quien los imagina, y la distancia que hay entre el deseo y la realidad termina por verter al desánimo nuestro personaje.*

**12 €**

*Urriak **08** octubre*
*20:30*
*60'*
*Serantes Kultur Aretoan*

**MANOLO ALCÁNTARA**



# Zirkuaren eta antzerki sozialaren arteko ikuskizun bikaina

# Suspensión

## Magnífico espectaculo mezcla de circo y teatro social

12 €

Urriak **22** octubre
20:30
60'
Serantes Kultur Aretoan

**CIRCO NUEVEUNO**

Bost gizon agertokian. Denak desberdinak eta denak berdinak. Elkar zaindu eta bultzatu egiten dute, bai eta elkarrekin ospakizunak egin ere. Aiztoak jaurtitzen euren itzalei, euren buruari begira, fokuak mugitzen espazio ezberdinak argitzeko, euren intimitatea erakutsiz eta entzuteko biluztuz... horrela ari dira. Etengabe bere burua kolokan jarri, baina euren identitatea gozatzen duten gizonak... azken batean, bost gizon besterik ez. Maskulinitatea zalantzan jarriko da proposamen zirraragarri honetan, non malabarrak, musika, koreografia eta eszenografia ezin zainduago egongo diren zirkuaren eta antzerki sozialaren arteko ikuskizun bikaina eskaintzeko.

*Vemos en escena a cinco hombres. Cada uno distinto y todos iguales. Se cuidan, se empujan y celebran juntos. Están lanzando cuchillos contra su propia sombra, mirando para sí, moviendo los focos para iluminar espacios distintos, mostrando su intimidad, y desnudándose para escuchar. Hombres que se cuestionan constantemente, pero se regodean en su propia identidad... son, al fin y al cabo, cinco hombres.*
*Una emocionante propuesta, en la que los malabares, la música, la coreografía y la escenografía están extremadamente cuidados para ofrecernos este magnífico espectáculo mezcla de circo y teatro social, donde se cuestiona la masculinidad.*

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE | inaem | PLATEA PROGRAMA ESTATAL DE ARTES ESCÉNICAS

# ZIRKO IKAS-TAROA



**MALABARRAK**
**OREKA**
**AKROBAZIA**
**AIREKO ARIKETAK**

MALABARES
EQUILIBRIOS
ACROBACIA
AÉREOS

IRAILAK 11 SEPTIEMBRE

### ZIRKOA HOBETO EZAGUTU NAHI AL DUZU?

*Irailaren 11n, Hiru aukera ezberdinak: 18:00 etan , 19:00 etan eta 20:00 etan. Iraupena: 45'*

**Non:** Mahastietako Eskolako patioan.

**Guztira**, 75 partaide aukera izango dute **KURTSO PRAKTIKO** hauetan parte hartzeko.

**Izena emateko:** Casa Torre Jauregian, Irailaren 1tetik 9arte. Inskripzio orrian behin behineko ordutegia aukeratu ahal izango da. Irailaren 10an komunikatuko dizuegu behin betiko ordutegia.

**Epea:** Argitaratzen denetik edukiera bete arte. Lekuak aldez aurretik betetzen ez badira, tailer bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago eman daiteke izena.

**Adina:** 18 urtetik gorakoak.

### ¿QUERÉIS CONOCER UN POCO MÁS EL MUNDO DEL CIRCO?

*11 de septiembre. 3 opciones: a las 18:00 / 19:00 / 20:00 horas, con una duración de 45'*

**Lugar:** Patio del Colegio de Las Viñas.

En **total** serán 75 participantes en este **CURSO PRÁCTICO.**

**Inscripción:** En Casa Torre Jauregia. Del 1 al 9 de septiembre. Una vez rellena la ficha con nombre y apellidos y un teléfono y preferencia horaria (que solo será orientativa), nos pondremos en contacto el día 10 de septiembre para concretaros la hora de vuestros talleres.

**Plazo:** Desde fecha de publicación hasta completar aforos. En caso de no cubrirse anticipadamente las plazas, se podrá apuntarse media hora antes de cada taller.

**Edad:** A partir de 18 años.

# LASTER

# PRÓXIMANENTE



## BILBAO ORKESTRA SINFONIKA

*Irailak 10 septiembre*



## PUERTAS ABIERTAS

**Cayetana Guillén Cuervo**

*Irailak 25 Septiembre*